

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko azaroaren 4tik azaroaren 8rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEAK: BEHIN BETIKO PMIa



Datuaren analisisia


Euroguneko PMI konposatua 50,6 puntutan kokatu zen urrian, aurreko hileko 50,1aren ondoren. Hartara, **manufakturen sektorearen** jarduera apur bat igo zen, 45,9 puntuetaraino, iraileko 45,7 puntuen ondoren; **zerbitzuen jarduera**, berriz, pixka bat gehiago igo zen, aurreko hileko 51,6tik 52,2ra. Herrialdeei begiratuta, Alemaniaren PMI konposatua izan zen 50etik behera geratu zen bakarra (48,9). Frantzia 52,6 puntutan kokatu zen eta Espainia 51,2 puntutan, 71 hiletan izan duen mailarekin okerre.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM ZERBITZUAK



Datuaren analisisia


Zerbitzuen sektoreko jardueraren **ISM** indizea 54,7ra igo zen urrian, irailean 52,6an kokatu ondoren. Analistek espero zutena baino altuagoa izan zen datua (53,5).

Adierazlearen azalpena

Manufaktura ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisia

Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantza 95,7raino igo da, urrian lortu zuen emaitza baino bi hamarren gehiago. Hala ere, analistek espero zutena baino bi hamarren txikiagoa da datua. Bi urtetan izan duen hobekuntza-epe luzeena izan da, hazkundera finkatzeko balio izan duen gastuaren egileentzat, hau da, kontsumitzaileentzat perspektibak hobetu diren seinale dena, langabezia-tasa txikiaren, marka denak hautsi dituzten akzioen prezioen eta Erreserba Federalaren interes-tasen murrizketen ondorioz. Espektatiben datuari dagokionez, azaroan 85,9koa izan da; 84,9 espero ziren eta aurreko datua 84,2koa izan zen. Gaur egungo baldintzei dagokionez, adierazlea 110,9an dago; 112,5 espero ziren eta 113,2 izan zen aurreko datua.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMI CAIXIN



Datuaren analisisia

Iraileko 51,3aren ondoren, **Caixin / Markit zerbitzuen PMI** indizea 51,1era jaitsi zen iragan hilean, eta otsaileko minimoa berdindu zuen. Hala ere, **Caixin PMI konposatuak** apur bat egin zuen gora, 52raino, aurreko 51,9tik.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/11	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% -0.4
11/11	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.4
11/11	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% -0.1
11/11	Erresuma Batua	GBP/MM Balantza komertzial ikusgarria	-£10100m
11/12	Frantzia	Frantziako Bankuaren Pertzepzio indizea	97
11/12	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 3.9
11/12	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-22.0
11/12	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-13.0
11/12	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
11/13	Alemania	Hileko KPIa	% 0.1
11/13	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% -0.1
11/13	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% -0.2
11/13	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.3
11/14	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.2
11/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.4
11/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 7.8
11/14	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% -0.1
11/14	Frantzia	Hileko KPIa	% -0.1
11/14	Espainia	Hileko KPIa	% 1.0
11/14	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 0.2
11/14	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
11/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
11/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	18.7b
11/15	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.2
11/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	5.9
11/15	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.2
11/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% -0.4

BURTSA:

Igoera orokorren astea munduko burtsa nagusietan. Merkatuentzat lagungarria izan zen AEB eta Txinaren arteko lehen hitzarmen komertzial baten inguruan zabaldu zen baikortasuna, horren ondorioz, Estatu Batuetako gobernuak mugasariak ken ditzakeelako. Hitzarmen komertzialaren lehen fasea azaroan bertan sina daitekeela kotizatu zen merkatuetan, baina Trumpek Txinako bere homologoarekin negoziatu ondoren, abendura arte atzeratu daitekeela ematen du, zehaztapenak eta lekua oraindik eztabaidagai baitira. Horrez gain, AEB eta Txinak gerra komertzialean jarritako mugasariak pixkanaka kentzeko adostasuna lortu dutela ere zabaldu zen, baina hasierako poza ostiralean epeldu zen, Trumpek ziurtatu zuenean oraindik ez zuela erabaki Txinari mugasariak kenduko zizkion ala ez. Bestetik, Ingalaterrako Bankuaren bilera egin zen. Bertan, erakundeak % 0,75ean mantendu zituen interes-tasak, aurreikusita zegoen moduan. Horrekin batera, Europako Batzordearen aurreikuspenek argia ikusi zuten. Erakundeak hamarren bat jaitsi zuen 2019rako Eurogunearen hazkundearen aurreikuspena (% 1,2tik % 1,1era), eta hiru hamarren kendu zizkion 2020koari (% 1,5etik % 1,2ra). Hirugarren hiruilekoko enpresen emaitza gehienak argitaratu ondoren, BPAen hazkundea laua izan zen AEBetan eta apur bat negatiboa Europan. Amaitzeko, asteburu honetan hauteskundeak egin ziren Espainian, eta alderdi sozialistak irabazi zuen, baina gehiengo osorik gabe. Hauteskundeen emaitzen ondorioz, akordioak lortzeko aukerak urriagoak dira orain.

ERRENTA FINKOA:

Arrisku handiagoa duten posizioenganako joerak gorantz bultzatu zituen zor subiranoaren errentagarritasunak, Europan zein AEBetan. Hartara, hamar urterako bonu amerikarraren errentagarritasunak 23 op egin zituen gora, % 1,94raino, eta hamar urterako Alemaniako tasa, aldiz, 12 op igo zen, -% 0,26raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari eskatutako errentagarritasunak 11 op egin zituen gora, % 0,39raino, eta arrisku-prima apur bat murriztu zen, 65 puntuetaraino. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroak balioa galdu zuen dollarraren aurrean, Euroguneko hazkundearen inguruko EBren aurreikuspenak murriztu ondoren eta Amerikako datu makroak espero baino hobeak izan zirelako (zerbitzuen ISMa, langabeziaren hasierako eskaerak). Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioa % 2,07 igo zen, gerra komertzialaren inguruan berpiztu den baikortasunarengatik eta Kanada eta AEBak batzen dituen oliobidea itxita dagoelako oraindik. Urrearen balioak % 3,66 egin zuen atzera, 1.458,92 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. 2019
MSCI WORLD (Local)	1.743,40	1,13	20,95
IBEX 35	9.393,70	0,70	10,00
DJ EURO STOXX 50	3.699,65	2,09	23,26
DJ STOXX 50	3.337,29	1,62	20,91
FTSE	7.359,38	0,78	9,38
S&P 500	3.093,08	0,85	23,39
Dow Jones	27.681,24	1,22	18,66
NASDAQ	8.475,31	1,06	27,73
NIKKEI 225	23.391,87	2,37	16,87
MSCI GORAKORRAK (LO)	59.271,39	1,66	10,94
MEXBOL	43.702,23	-0,26	4,95
BOVESPA	107.629,00	-0,52	22,46
SHANGHAI	3.105,52	0,20	18,92

Gobernuen tasak 2019	Maila	Aldaketa Astean	Ald.
ALEMANIA 2 URTE	-0,62	0,04	-0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,39	0,04	-0,14
AEB 2 URTE	1,67	0,12	-0,81
ALEMANIA 10 URTE	-0,26	0,12	-0,51
ESPAINIA 10 URTE	0,39	0,11	-1,03
AEB 10 URTE	1,94	0,23	-0,74
ALEMANIA 30 URTE	0,27	0,12	-0,61
ESPAINIA 30 URTE	1,26	0,10	-1,35
AEB 30 URTE	2,42	0,23	-0,59
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	48,94	-1,31	-39,43

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-1,32	-3,92
Yena / Euroa	120,39	-0,34	-4,22
Libera / Euroa	0,86	-0,11	-4,11

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	62,97	2,07	18,43
Urrea	1.458,92	-3,66	13,76

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.